

Obarioak kimioterapiatik babesteko molekula bat probatu dute saguetan


Kimioterapien erabiltzen den botiketako batek, ziklofosamidak, obarioetan duen eragin kaltegarria aztertzeaz gain, kalte horretatik babesten duen molekula bat aurkeztu du Israelgo ikertzaile-talde batek. *Science Translational Medicine* aldizkarian argitaratu dute ikerketa, eta, haren arabera, sagu emeei ziklofosamidarekin batera AS101 izeneko molekula emanez gero, obarioek kalte txikiagoa pairatzen dute, eta saguek ez dute ugalkortasuna galtzen.

Ikertzaieek azaldu dutenez, ziklofosamidak obarioetako

folikulua aktibatzen ditu, eta horrek zaugarri bihurtzen ditu hurrengo dosien aurrean, botikak bikoizten ari diren zelulak hiltzen baititu. Are gehiago, ikusi dute aktibazio hori PI3K proteinaren bidez kontrolatzen dela. Eta, hain juxtu, proteina horren aurka egiten du AS101 molekulak. Hala, ziklofosamidarekin tratatzen ari ziren sagu batzuei AS101 eman zieten, eta frogatu zuten horri esker folikuluek kalte txikiagoa jasaten zutela.

Babes-neurriak, gaur egun Onkologikoko Arrate Plazaola espezialistaren ustez, molekula eraginkorra izan badaiteke ere, oraindik goiz da esateko emakumezkoentzat mesedegarria izango ote den ala ez. Horrez gain, gaur egun ere ugaltzeko aukera ez galtzeko eta obarioak babesteko neurriak hartzen dituztela azaldu dio *Elhuyar* aldizkariari.

Hasteko, kimioterapiak ez duela halabeharrez antzutzea ekartzen gogorarazi du Plazaolak: "Tratamendua ezartzeko, beti hartzen da



Irudian, minbiziaren aurkako botikak eta babesleak obarioan duten eragina ikusten da. Goian ezkerrean, kontrola; goian eskuinean, babeslearekin; behean ezkerrean, minbiziaren aurkako botikarekin; behean eskuinean, botika gehi babeslea. ARG.: *SCIENCE TRANSLATIONAL MEDICINE/AAAS*.

kontuan eman beharreko botikek zenbaterainoko eragina duten ugalkortasunean, ahalik eta tratamendu arinena edo kalte txikiena egiten duena emateko. Hala ere, kasu batzuetan badakigu obarioek kalteak jasango dituztela. Orduan, beste espezialista batzuek bideratzen ditugu, dauden aukeren artean egokiena aukeratzeko".

Aukera horien artean, obozitoak edo obulutegiaren azala erauztea eta izoztea aipatu ditu Plazaolak, "gerora, *in vitro* emalketa bidez haurrak edukitzeko aukera izan dezan".

Azkenik, Isralego ikerketaren antzera, obarioak babesteko botikak ere erabiltzen direla esan du. "LH-RHaren analogoak dira botika horiek, eta kasu batzuetan emaitza ona ematen dute. Nolabait esateko, obulua lokartu egiten dute, hilekoa desagertu egiten da, eta, hala, kimioterapiaren kaltea txikiagoa da".

Azken finean, kimioterapiaren albo-ondorioak apaltzeko ikerketek interes berezia dute, eta mundu osoko laborategietan ari dira egiten saiakerak, pazienteen ongizatea zaintzeko asmoz. ●



Arrate Plazaola, Donostiako Onkologikoko espezialistaren esanean, ahalik eta kalte txikiena egitea da beti helburua. ARG.: ANA GALARRAGA/ELHUYAR.

Giza geneak ezingo dira patentatu Estatu Batuetan

Estatu Batuetako Auzitegi Gorenak aho batez hartutako erabakiaren arabera, naturan dagoen DNA ezin da patentatu, bai ordea laborategian sintetizatutakoa.

Erabaki horrekin, epaileek atzera bota dituzte Myriad Genetics konpainiaren patenteak. Konpainia horrek bularreko eta obarioetako minbiziarekin erlazioatutako geneen erabilera- eskubideak zituen; guztira, zazpi patente. Myriad 1994ean hasi zen patente horiek

lortzen, eta, geroztik, haienak ziren minbizi-mota horiek diagnostikatzeko proben gaineko eskubideak.

2009an, Patente Publikoen Fundazioak (PubPat) eta Askatasun Zibilen aldeko Elkarte Estatuatuarrak (ACLU) epaitegietara jo zuten, patente horien aurka. Lehen epaiketan, 2010ean, epaileek elkartei eman zieten arrazoia, baina konpainiak errekurritu egin zuen, eta gaia Auzitegi Gorenera iritsi zen. Oraingo

epaia behin betikoa da, eta Myriad eskubideak ukatzen dizkio.

Estatu Batuetan geneak patentatzea baimenduta egon da duela hiru hamarkadatik; giza genomaren % 20-40 patentatuta dago. European, 98/44/EC zuzentarauak gene isolatuak patentatzea baimentzen du, baina soilik tartean asmakizun edo berritasun bat bada, hala nola, aplikazio industrialerako moldatzea. ●